


IKASTETXEA	ITURRAMA BHI		
IZENBURUA	EUSKARAREN ATZERAKADA...	MAILA	DBH 1-2
IRAKASLEA	IMANOL REKONDO	IKASGAIA	EUSKARA

DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.

## 2. ATAZA

### EUSKARAREN ATZERAKADA MENDEETAN ZEHAR



### EUSKAL HERRIKO HIZTUNEN TIPOLOGIA LURRALDEZ LURRALDE

Tipologia		Euskal Herria	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Lapurdi	Nafarroa	Nafarroa Beherea	Zuberoa
Euskaldun elebakarrak	kopurua (%)	23.500 (% 1)	0 (% 0)	6.600 (% 0,68)	11.300 (% 2,02)	2.100 (% 1,26)	2.700 (% 0,65)	500 (% 2,07)	300 (% 2,12)
Elebidunak	kopurua (%)	505.200 (% 21,39)	15.600 (% 7,01)	151.800 (% 15,83)	234.100 (% 41,7)	43.300 (% 25,33)	37.500 (% 8,9)	14.800 (% 59,47)	8.100 (% 61,74)
Euskal elebidunak	kopurua (%)	159.200 (% 6,77)	900 (% 0,42)	44.700 (% 4,66)	85.300 (% 15,19)	6.900 (% 4,04)	13.600 (% 3,23)	5.700 (% 22,91)	2.100 (% 15,94)
Elebidun orekatuak	kopurua (%)	146.300 (% 6,18)	3.200 (% 1,43)	36.500 (% 3,81)	66.800 (% 11,9)	20.100 (% 11,77)	10.700 (% 2,54)	5.400 (% 21,58)	3.600 (% 27,3)
Erdal elebidunak	kopurua (%)	199.700 (% 8,44)	11.500 (% 5,17)	70.600 (% 7,37)	82.000 (% 14,61)	16.300 (% 9,52)	13.200 (% 3,13)	3.700 (% 14,98)	2.400 (% 18,5)
Elebidun hartzaileak	kopurua (%)	182.700 (% 7,71)	16.700 (% 7,54)	72.000 (% 7,51)	60.000 (% 10,7)	12.100 (% 7,09)	19.300 (% 4,58)	800 (% 3,4)	1.800 (% 13,51)
Erdaldun elebakarrak	kopurua (%)	1.659.800 (% 69,91)	189.400 (% 85,44)	728.300 (% 75,98)	255.800 (% 45,58)	113.400 (% 66,32)	361.200 (% 85,87)	8.700 (% 35,06)	3.000 (% 22,62)

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiaren inkesta soziolinguistikoa (1991)

JATORRIA	
EGILEA	EZEZAGUNAK
IZENBURUA	EUSKARAREN ATZERAKADA MENDEETAN ZEHAR
ARGITALETXEA/Webgunea	WWW.MAPAGUNEA.COM
URTEA	MAPA (?) INKESTA (1991)
ORRIALDEA (K)	
ISBN	
TESTU-MOTA	
OINARRIA	INPRIMAKIA
FORMATOA	MISTOA
MOTA	AZALPENEZKOA
ERABILERA	PUBLIKOA

**OHARRA:** Testu hau behar bezala lantzeko kolorez ematea komeni da.

JARDUERAK	
1. INFORMAZIOA BILATU EDO BERRESKURATU	
1.1 Galdera	
Euskal Herriko zenbat biztanle mintzatzen zen soilik euskaraz 1991ko inkesta soziolinguistikoaren arabera?	
1.1 Erantzuna	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• 23.500 biztanle</li> </ul>	
1.1 OHARRAK	
1.2 Galdera	
Inkestaren arabera, zein Euskal Herriko lurraldetan zegoen 1991. urtean euskaldun elebkarren ehuneko altuena? Aukeratu erantzun zuzena.	
a) Bizkaian b) Araban c) Nafarroan d) Lapurdin e) Zuberoan	
1.2 Erantzuna	
e) Zuberoan	
1.2 OHARRAK	

## 2. ULERMEN OROKORRA

### 2.1 Galdera

Inkestan zein dira ematen diren datuak? Egokiena(k) aukeratu:

- a. hizkuntzaren erabilera
- b. jatorria/bizitokia
- c. ikasketak
- d. hiztunen ehunekoak
- e. hiztun kopurua

### 2.1 Erantzuna

C izan ezik, guztiak

### 2.1 OHARRAK

### 2.2 Galdera

Inkesta soziolinguistikoak ematen dituen datuak kontuan hartuz, lotu itzazu gezien bidez hurrengo datuak edo informazioak:

3.000	Nafarroan	euskaldun elebakarrak
0	Zuberoan	elebidun orekatuak
1.659.800	Araban	erdaldun elebakarrak
10.700	Euskal Herrian	erdaldun elebakarrak

### 2.2 Erantzuna

3.000	Nafarroan	euskaldun elebakarrak
0	Zuberoan	elebidun orekatuak
1.659.800	Araban	erdaldun elebakarrak
10.700	Euskal Herrian	erdaldun elebakarrak

- 3.000: Zuberoan zeuden erdaldun elebakarrak.
- 0: Araban zeuden euskaldun elebakarrak.
- 1.659.800: Euskal Herrian zeuden erdaldun elebakarrak.
- 10.700: Nafarroan zeuden elebidun orekatuak.

### 2.2 OHARRAK

## 3. INTERPRETAZIOA-INFERENTZIAK

### 3.1 Galdera

Nola deitzen zaie euskaraz nekez hitz egin baina ondo ulertzen dutenei? Aukeratu erantzun egokia.
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskal elebidunak</li> <li>• Erdal elebidunak</li> <li>• Elebidunak</li> <li>• Elebidun hartzaileak</li> </ul>
3.1 Erantzuna
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Elebidun hartzaileak</i></li> </ul>
3.1 OHARRAK
<b>3.2 Galdera</b>
Zure ustez 1810. urtean hitz egiten al zen euskara Iruñean? Arrazoitu erantzuna.
3.2 Erantzuna
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Bai. Maparen arabera, XIX. mendean hitz egiten zen eta 1810 mende horri dagokio.</i></li> </ul>
3.2 OHARRAK
<b>4. EDUKIAREN GAINEKO HAUSNARKETA EDOTA BALORAZIOA</b>
<b>4.1 Galdera</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zure ustez 2010 urtean euskaldun elebidunen kopurua handitu da? Zure erantzuna arrazoitu.</li> </ul>
4.1 Erantzuna
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bai, jaiotzen diren haur askok euskaraz ikasten baitute.</li> </ul>
4.1 OHARRAK
<b>5. FORMAREN GAINEKO HAUSNARKETA EDOTA EBALUAZIOA</b>
<b>5.1 Galdera</b>
Funtzio bera betetzen al dute koloreek bi testuetan? Arrazoitu erantzuna.
5.1 Erantzuna
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Ez. Lehenengoan denbora tarteak bereizteko erabiltzen dituen bitartean, bigarreanean atalak hobeki bereizteko besterik ez dira erabiltzen.</i></li> </ul>
5.1 OHARRAK
<b>5.2 Galdera</b>

Zertarako erabiltzen dira testuan koloreak?

## 5.2 Erantzuna

- *Euskararen erabilera mendeetan zehar noraino iristen zen erakusteko.*

## 5.2 OHARRAK